

Egungo beharrei erantzuten eskolan: Interneteko erabilera kritikoa indartzeko formazio-ekintza

Gamito, Raket; Tresserras, Alaitz; Martinez, Judit; Fernandez, Vanesa.

*Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), IKHEZI (IKerketa HEZItzailea)
raketgamito@gmail.com*

Laburpena

Azken urteetan Informazio eta Komunikazio teknologiek (IKT) aldaketa soziologiko nabarmena eragin dute, bereziki adingabeen artean. Ezinbesteko tresnak bilakatu dira IKTak eta, batez ere, Internet. Ondorioz, gero eta garrantzitsuagoa da horien ardurazko erabilera indartzea.

Horregatik, lan honen helburua Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin Interneteko erabilera segurua eta kritikoa lantzeko formazio-ekintza jasotzea eta balioztatzea da, etorkizunean segurtasuna bermatzeko gakoak eskaini ahal izateko. Emaiztekin egiaztatzen dute premiazkoa dela geletan Interneteko arriskuak lantzeko eta ondorioei buruz hausnartzeko espazioak eskaintzea.

Hitz gakoak: IKT, Internet, arriskuak, adingabeak.

Abstract

In recent years Information and Communication Technologies (ICT) has produced sociological changes, especially among teenagers. ICT tools, mostly Internet, have become needed tools. Hereby, it is increasingly important to strengthen responsible Internet usage.

Thus, the objective of this investigation is to gather and value the formative action of a secure and critic usage of Internet with Primary Education's 5th grade students. The results confirm the need of a reflexive space around the risks of Internet and their consequences in the classroom.

Keywords: ICT, Internet, risk, child.

1. Sarrera eta motibazioa

Internet gure bizitzetako parte da. Azken urteetan hedapen handia jasan du teknologiak eta, ondorioz, urtetik urtera nabarmenki gora egiten du Interneteko konexioen eta Interneteko ohiko erabiltzaileen kopuruak, Europa, Espainia zein Euskal Autonomi Erkidego (EAE) mailan (Europar Batzordea, 2016; INE, 2016). Gainera, smartphoneek konexio kopurua zein konektatuta pasatzen dugun denbora nabarmenki handitu dute eta dagoeneko gizarteak oso barneratuta du momentu oro "online" egotearen beharra.

Sareak eskaintzen dizkigun abantailak dira Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) arrakastaren arrazoi nagusia: denbora-mugak ezabatzen dituzte, komunikazioa errazten dute eta informazio-iturri handiak dira. Horregatik, arlo profesional, sozial zein pertsonalean behar-beharrezko tresnak bilakatu dira IKTak, eta batez ere Internet, (Rial, Gómez, Braña eta Varela, 2014).

Adingabeen kasuan, hedapen teknologikoak nabarmenagoa da (INE, 2016) eta eragin zuzena du euren bizimoduan eta, Internet erabili ezean, Interneten bizi dira (EU Kids Online, 2014; INTECO, 2012; Protégeles, 2014). Adingabe gehienak Interneteko ohiko erabiltzaileak dira eta ehuneko handi batek telefono mugikor pertsonala du (INE, 2016).

Sareak onura ugari eskaintzen die adingabeei baina, era berean, adingabeek Interneten bizi dituzten esperientzia negatiboei buruzko datuak kezagarriak dira (EU Kids Online, 2014; Irazabal, 2013; Fernández-Montalvo, Peñalva eta Irazabal, 2015; Protégeles, 2014). Sareak baditu arriskuak, Interneten erabilera desegokiak gatazkak sor ditzake eta horien ondorioak larriak izan (García, 2011).

Horregatik, garrantzitsua da Interneteko arriskuak eta horien ondorioak ezagutzea eta IKTen erabilera egokia eta segurua bermatzea (Rial et al., 2014). Azken finean, Interneteko arriskuen aurrean segurtasun-tresnarik edota iragazkirik onena horiei buruzko ezagutza eta hausnarketa

baita (Aftab, 2005; Garmendia, Casado, Martínez, eta Gritaonandia, 2013; Tauste eta Cervantes, 2012; Unicef, 2014).

Momentuko egoeraren aurrean, eskolen ardura nagusia da. Beharrei erantzun eta Interneteko erabilera segurua bermatu nahi dute eta, horretarako, zenbait ikastetxeetan Interneteko erabilera kritikoa indartzeko zenbait ekintza burutzen ari dira. Lan honen abiapuntua eta helburua dira horren adibide eta bertan Interneteko arriskuei buruzko formazio-ekintza baten esperientzia jasotzen, aztertzen eta balioztatzen da.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Gaur egun, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) 10 eta 15 urte bitarteko biztanleriaren % 98,1 Interneteko ohiko erabiltzailea da eta % 79,2k telefono mugikor pertsonala du (INE, 2016). Gainera, datuen bilakaeraren arabera, Internetera sarbidea gero eta adin gazteagotan gertatzen da (Gairín et al., 2014; Holloway, Green eta Livingstone, 2013).

2.1 Internet: zenbat eta zertarako

Egunero konektatzen dira Internetera adingabeak (Graner, Beranuy, Sánchez-Carbonell, Chamorro, eta Castellana, 2007; Rial et al., 2014) eta 1 eta 2 ordu bitartean eskaintzen ohi diote konexio-ekintzari (Fernández-Montalvo et al., 2015; Rial et al., 2014).

Internet erabiltzeko arrazoi nagusiak sare sozialak bisitatzea, bideoak ikustea eta euren arteko komunikazioa gauzatzea dira (EU Kids Online, 2014). Era berean, eskolako lanak egiteko informazioa bilatzea, jolastea edota argazkiak eta bideo pertsonalak partekatzearen ohitura ere nabarmentzen dira (Rial et al., 2014).

2.2. Interneteko arriskuen aurrean, adingabeak erabiltzaile ahulenak

Interneten bizi daitezkeen egoera negatibo, arriskutsu edota gatazkatsuek erabiltzaile adingabeen irudia, nortasuna eta osasuna mehatxatu edota kaltetu dezakete. Beraz, ondorioak larriak izan daitezke (Echeburúa eta De Corral, 2010).

Adingabeei gehien arduratzen edo molestatzen zaizkien egoerak ezezagunekin kontaktua izatea eta eduki desegokietako (sexu, droga, elikadura-desordena, suizidioa, etab.) webguneak ikustea dira (Mascheroni eta Cuman, 2014). Adingabeen % 44 noizbait online sexu-jazarpenaren biktima izan da, % 17,9k sarearen bidez ezezagunekin harremana izan du, % 13,7k sexu-irudiak jaso ditu, % 13k txantxak jasan ditu eta % 9 mehatxatua izan da (EU Kids Online, 2014; Fernández-Montalvo et al., 2015; Protégeles, 2014).

Zerrendatutako arriskuei erantzuteko, adingabeek heldutasun eza eta irizpide falta dute (Livingstone, 2004). Kasu askotan ez dituzte arriskutsutzat ulertzen ezezagunekin kontaktua izatea eta datu pribatuak publikatzea bezalako praktikak (Ballesta, Lozano, Cerezo, eta Soriano, 2015; McCarty, Prawitz, Derscheid, eta Montgomery, 2011). Are gehiago, Internet segurua ez dela jakin arren, aitortzen dute ezezagunen gonbidapenak onartzen dituztela.

Ondorioz, Internet gehien erabiltzen duen biztanleria sareko arriskuen aurrean erabiltzaile-talde babesgabeena da (Echeburúa eta De Corral, 2010).

2.3. DIGCOMP, gaitasun digitalaren erreferentea

Ukaezina da Internetek adingabeen bizitzetan duen protagonismoa eta, ondorioz, hezkuntza formalak ezin dio errealitate horri bizkarra eman. Horregatik, 2006an, Europako Parlamentuak 2006/962/CE dokumentuan, hezkuntza iraunkorrerako funtsezko gaitasunen artean, gaitasun digitala jaso zuen. Bestalde, Europar Batasunak 2010ean hasitako DIGCOMP proiektuaren barnean, gaitasun digitalaren marko orokor bat proposatu du berriki Europar Batzordeko Teknologia Prospektibako Institutuak.

Dokumentu horien arabera, IKTen erabilera seguru eta kritikoa gaitasun digitalaren oinarri dira, horretarako datu pertsonalen zein nortasun digitalaren kudeaketa, jarrera arduratsua eta etikoa ezinbesteko ezaugarriak izanik.

Horren aurrean, premiazkoa da geletan Interneteko erabilera autonomoa, kritikoa eta arduratsua lantzeko espazioak eskaintzea (Del Rey, Casa eta Ortega, 2012; Rial et al., 2014). Eskolek, ikasketa-programetan pribatutasuna, Interneteko arriskuak eta nortasun digitalari buruzko gaitasun eta edukiak txertatzeaz gain, Interneteko erabilera egokia indartu eta horri buruzko lanketa eta hausnarketa ziurtatu beharko lukete.

2.4 Eskolaren beharrei erantzuna eta lanaren helburuak

Ildo horri jarraituz, lanaren asmo nagusia eskolaren beharrei erantzutea da eta horretako hiru helburu zehazten dira:

- Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei zuzendutako eta Interneteko arriskuak eta nortasun digitala lantzen dituen formazio-ekintzaren esperientzia jasotzea.
- Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek mundu digitalaren arriskuei buruz dituzten ideiak identifikatzea:: esperientziak, ezagutza, pertzepzioa eta ardura.
- Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleekin batera burututako burujabetza digitalaren lanketa-saioak balioztatzea.

3. Ikerketaren muina

Lanaren helburuak lortzeko, behaketa parte-hartzailea ardatz duen lan bat gauzatu da. Behatutakoa Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei zuzendutako formazio-ekintza izan da eta horren xedea Interneteko erabilera desegokiekiko jarrera kritikoa eta prebentzio-jarraibideak garatu eta indartzea izan da.

Behaketak ikasle-taldearen errealitate sozialean murgiltzeko eta hori gertutasunetik hobeto ulertzeko aukera eskaini du (Denzin, 2000). Ikertzailea aldi berean behatzaile eta lanketa-saioen gidari izan da, taldearekin batera parte hartuz. Honek, taldeak gaiari buruz dituen ideiak ondo ulertzeko bidea eskaintzen du (Guasch, 1997).

3.1 Parte-hartzaileak

Parte-hartzaileak Vitoria-Gasteizko (Araba) ikastetxe publiko bateko Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 5. mailako ikasleak izan dira. Guztira 67 ikasle, 3 taldetan banatuta eta sexuari dagokionez oso orekatuta (1. taula):

1. taula. Parte-hartzaileen lagina sexuaren eta taldearen arabera

	1. taldea	2. taldea	3. taldea	Guztira
Neskak	8	14	12	34 (% 50,75)
Mutilak	14	13	6	33 (% 49,25)
Guztira	22	27	18	67

3.2 Tresnak

Errealitatearen zein esperientziaren zenbait ikuspuntu lortzeko asmoz, informazioaren bilketa hainbat tresnaren bidez gauzatu da:

- Formazio-ekintzako saioetan zehar gertatutakoak jasotzeko landa-oharrak.
- Formazio-ekintzako saio bakoitzaren audio-grabaketa eta horren transkribapena.
- Formazio-ekintzako saio bakoitzaren informazioa biltzeko behaketa-etaulak.
- Formazio-ekintzako saioak balioztatzeko *ad hoc* prestatutako galdetegia.

3.3 Prozedura

Lanak aurreko formazio-ekintza batean du oinarria. Orduan, Vitoria-Gasteizeko (Araba) ikastetxe publiko batek Interneteko arriskuen lanketa Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasketa-programan txertatzeko nahia eta saioak diseinatzeko laguntzaren beharra adierazi zuen.

Egoera ezagututa, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateak ikastetxearen beharrei erantzuna emateko lanak bideratu zituen. 2014/15 ikasturtean zehar, Interneteko arriskuak lantzeko formazio-ekintza bat diseinatu, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailatan martxan jarri (7 talde) eta prozesu osoa balioztatu zen. Esperientzia erabat esanguratsua, aberasgarria eta positiboa izan zenez, hurrengo ikasturtean (2015/16) ikastetxeak esperientzia errepikatzeke asmoa adierazi du.

Beraz, lan honen lehenengo urratsa aurreko esperientziaren balorazioa berraztertu eta, horren arabera, formazio-ekintzako diseinua hobetzea izan da. Jarraian, egindako aldaketak ikastetxeko IKT dinamizatzaileari aurkeztu zaizkio eta, bere oniritzia jaso ondoren, saioen lan-egutegia zehaztu eta audio-grabaketak egiteko baimena bete da.

Formazio-ekintza 45 minutuko hiru saioz osatu da eta horiek hiru astetan banatu dira. Beraz, ikasle-talde bakoitzak, hiru astetan zehar, astero formazio-ekintzaren saio batean parte hartu du. Alegia, saio bakoitza hiru aldiz eta hiru ikasle-talde ezberdinekin errepikatu da. Formazio-ekintzaren saioak martxan jarri eta burutu dira ikastetxeko IKT dinamizatzailearekin adostutako lan-egutegiaren arabera: 2016ko martxoaren 1ean, 8an eta 17an.

Diseinu osoaren helburu nagusia pribatutasunaren, Interneteko arriskuen eta nortasun digitalari buruzko edukiak lantzea eta, horri esker, ikasleen burujabetza digitalaren garapena bermatzea izan da. Hortaz, landu diren eduki zehatz nagusiak Interneteko arriskuak (cyberbullying-a, sexting-a, grooming-a, eduki ezegokiak eta menpekotasuna), pribatutasuna, nortasun digitala eta IKTen erabilera kritiko, seguru eta arduratsutarako prebentzio-jarraibidea izan dira (2. taula).

2. taula. Formazio-ekintzako saioen edukiak

Saioa	Edukiak
1: Interneteko arriskuak eta pribatutasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Interneteko erabilera-ohiturak. • Pribatutasunaren kudeaketaren garrantzia. • Interneteko arrisku nagusiak: cyberbullying, sexting, grooming, eduki ezegokiak eta menpekotasuna.
2: Nortasun digitala	<ul style="list-style-type: none"> • Nortasun digitala: kontzeptua, eraikuntza, eragina eta garrantzia. • Testuingururik gabeko iritzien zein iritzi negatiboen eragina eta errespetuaren garrantzia.
3: Erabilera segururako prebentzio-jarraibideak	<ul style="list-style-type: none"> • Jarrera kritiko, erreflexibo, arduratsu eta etikoa. • Erabilera segururako prebentzio-aholkuak eta burujabetza digitala bermatzeko gakoak. • Gaiari buruzko ardura eta interesa. • Gaia lantzearen beharra eta garrantzia.

Horretarako, saioak zenbait ariketa eta hausnarketa-prozesuez bidez egituratu dira. Momentu oro, ezagutza berrien eskuratze-prozesua berrikuntza-funtzio eta motibazio-funtzioen eraginpean dagoenez (Domenech eta Viñas, 1997), ikasleei ariketak modu erakargarri, motibagarri eta interesgarrian proposatu zaizkie. Hots, formazio-ekintzako ariketak jolas modura aurkeztu dira gelan.

Ikaslea eta ikasle-taldea saioen protagonistak izan dira, izaki aktibo eta sortzaileak. Jarrera kritiko eta arduratsua garatu eta indartu aldera, momentu oro hausnartzeko eta adierazteko prest

egotea eskatu zaie. Modu autonomoan parte hartu dute: galderak erantzun, galderak egin, jolasak (ariketak) burutu, iritzia eman, eztabaidatu, etab.

Bestalde, IKTen helburu garrantzitsu eta unibertsalenetako bat gizarte osoaren arteko mugarik gabeko komunikazio eta kooperazioa denez, guztion arteko elkarlanaren eta errespetuaren garrantzia barneratzea ezinbestekoa izan da. Talde-lana indartu da, beti elkarbizitzako arauak betez. Alegia, garrantzi handia eman zaio besteak errespetuz eta interesez entzuteari eta txandak gordetzeari.

Azkenik, saioaren gidariaren funtzio nagusia ez da irakastea edo konbentzitzea izan. Edukien transmisio hutsa alde batera utzi eta ikasleei hitz egiteko eta euren interes, ezaugarri eta erritmorra moldatutako ariketak eskaini zaizkie, beti ikuspegi eraikitzailean oinarritutako ikasketa esanguratsu eta funtzionala ziurtatuz. Horrela, formazio-ekintzak motibazioa eta dinamizazioa izan du ardatz.

3.4. Emaitzak

Formazio-ekintzaren bitartez jasotako datu ohargarrienak ondorengo taulan laburtzen dira (3. taula).

3. taula. Formazio-ekintzako emaitzak

Kategoria	Emaitzak	Ahotsak
IKTen erabilera-ohiturak	<ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzen dituzte: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Egunero: % 31 ◦ Ia egunero: % 24k ◦ < 1 ordu/egunero: % 42 ◦ 1-2- ordu/egunero: % 35 • Orain dela bi urte hasi ziren erabiltzen (8,5 urte): % 65 • Gehien erabiltzen duten tresna telefono mugikorra da. • Internet erabiltzeagatik zerbaitegin gabe utzi dutela onartzen dute (eskolako lanak edota deskantsatu): %22. • Erabileraren helburu nagusiak eskolako lanak, informazioa bilatzea, bideoak ikustea eta berdinen arteko komunikazioa dira. 	
Bizipen negatiboak edo egoera gatazkatsuak	<ul style="list-style-type: none"> • Egoera deseroso edota arriskutsuren bat bizi izan dute (irudi eta mezu desatseginak ikustea / ezezagunekin topo egitea): % 43 	<p>“Lagun baten etxean, ordenagailua erabiltzen genuen bitartean, neska bat agertu zen, biluzik, eta esan zigun <te estaba esperando>.” (Mutila, 2. saioa)</p> <p>“Nire lagun batek ezezagun baten mezuak jasotzen ditu eta plaza batera joateko esaten diote. Nire adinekoa da. Gurasoei esan die baina uste dut ez dutela ezer egin.” (Neska, 1. saioa)</p>
	<ul style="list-style-type: none"> • Internet asko erabiltzen dutela adierazten dute. • .Kasu askotan neurririk gabeko erabilera nabarmena da 	<p>“Nik gauetan mugikorra ohera eramaten dut eta Interneten sartzen naiz jolasteko, gurasoek jakin gabe.” (Neska, 1. saioa)</p>
Arriskuei buruzko ezagutza eta pertzepzioa	<ul style="list-style-type: none"> • Interneteko arrisku nagusiak: birusak (arrisku teknikoak) eta informazio pertsonalaren lapurreta. 	<p>“Hackerrek, zure ordenagailuan sartzen direnean, baimenik gabe zure bizitzako informazioa eta argazkiak ikusi eta lapurtu dezakete.” (Neska, 1. saioa)</p>

		“Facebook-en gezurra esaten duen jendea aurkitu dezakezu. Agian neska dela esaten dizu baina benetan mutil bat da.” (Neska, 3. saioa)
	<ul style="list-style-type: none"> • Neurririk gabeko erabilera ez da arriskutsua. 	“Horrelako zerbait egiten badugu ez dago inolako arazorik. Arazo bakarra hurrengo eguneko logura da.” (Mutila, 1. saioa)
	<ul style="list-style-type: none"> • Pribatutasuna garrantzitsua dela adierazi arren ez dute kudeaketa egokia bermatzen. 	<p>“Argazki bat bidaltzen dugunean besteak argazki horrekin nahi duena egin dezakeela” (Neska, 2.saioa)</p> <p>“Zure argazki bat bidaltzea ez dago gaizki, biluzik ez bazaude behintzat.” (Mutila, 1.saioa)</p>
Balorazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasi: % 90 • Interesa, ardura eta zalantzak • Parte-hartzea • Gai garrantzitsua: % 89 • Saio interesgarriak: % 85 • Gaia eskolan lantzea beharrezkoa: % 95 	

4. Ondorioak

IKTen eta Interneteko erabilera adingabeen ohiko ekintza da. Parte-hartzaileen gehiengoak IKTak egunero edo ia egunero erabiltzen ditu, bizitzako esparru ezberdinetan (ikasketak, aisialdia eta harremanak) eta horretarako mugikorra da bide nagusia. Emaitzek Interneteko erabilera-ohituren ikerlanen ondorioekin bat egiten dute (Fernández-Montalvo et al., 2015; Graner et al., 2007; INE, 2016; Rial et al., 2014).

Nahiz eta parte-hartzaileen adina txikia izan, ia erdiak noizbait egoera deseroso edota arriskutsuren bat bizi izan du. Mascheroni eta Cuman-en (2014) lanean adierazten den bezala, ikasleek identifikatzen eta zerrendatzen dituzten egoera gehienak irudi eta mezu desatseginak ikustea edota ezezagunekin topo egitearekin dute harremana.

Hala ere, adingabeen ustez bi dira Interneteko arrisku nagusiak eta horiek ez dute harremanik aurretik adierazitako esperientziekin: birusak (arrisku teknikoak) eta informazio pertsonalaren lapurreta. Oso gutxi dira, arriskuei buruz galdetzerakoan bestelako arriskuak (ezezagunak, eduki ezegokiak, cyberbullying-a eta menpekotasuna) zerrendatzen dituztenak.

Bestalde, agerikoak dira adingabeen teoria-mailako baieztapenen eta erabilera-ohituren arteko kontraesanak. Jakin badakite pribatutasuna eta datu pertsonalak zaintzea garrantzitsua dela baina ikasleek ez dute horien kudeaketa egokia bermatzeko ekintzarik burutzen. Are gehiago, sare sozial bateko profila publiko izateak edota “argazki bat bidaltzen dugunean besteak argazki horrekin nahi duena egin dezakeela” jakin arren, euren artean oso ekintza zabalduak dira.

Hau da, adingabeak ez dira konturatzen euren erabilera pertsonalean ere maila teorikoan ezagutzen dituzten arriskuak daudela. Hots, emaitzen arabera, eta Livingstone-ren (2004) ondorioekin bat eginez, adingabeek heldutasun eza eta irizpide falta dute sarearen erabilera kritikoa eta arduratsua gauzatzeko zein Interneten gertatzen diren egoera arriskutsuei erantzuteko.

Horren aurrean, formazio-ekintza modu arrakastatsuan burutu da. Saioei esker, parte-hartzaileek Interneteko erabilera desegokiak dakartzan arriskuak identifikatu, nortasun digitala

ezagutu, IKTekiko jarrera kritikoa garatu eta horien erabilera segurua bermatzeko prebentzio-jarraibideak barneratu dituzte.

Gehienek aitortzen dute gutxitan pentsatzen dutela Internet erabiltzearen ondorioetan baina gaiarekiko interesa eta ardura adierazi dute. Ikasleek momentu oro ariketa zein eztabaida txikietan modu antolatuan eta gogotsu parte-hartu dute. Horrek IKTen erabilera seguru eta arduratsuari buruzko hausnarketa konstruktibistan oinarritutako prozesu eraikitzaileak eragin eta sustatu ditu.

Era berean, balorazio-galdetegiaren arabera, parte-hartzaileek landutako gaia garrantzitsua eta, ondorioz, Interneteko erabilera desegokiak dakartzan arriskuak eskolan lantzea beharrezkoa dela defendatzen dute. Euren ustez saioak interesgarriak eta dibertigarriak izan dira eta aldatuko luketen gauzen artean gaiari buruzko saio gehiago izatea nabarmendu dute.

Beraz, emaitzek egiaztatzen dute adingabeen IKTen erabilera egokia indartzeak lehentasuna duela. Azken finean, Interneten arriskuak egon badaude. Klik simple batek gure bizitza hankaz gora jar dezake eta adingabeak horretaz jabe izan behar dira.

Bizi dugun testuinguru digitalean, funtsezkoa da gaur egungo ume eta gazteek offline eta online arloetan moldatzeko gaitasuna izatea. Horretarako, Del Ret et al-ek (2012) adierazten duenez, geletan Interneteko bizipenei eta pribatutasunaren kudeaketari buruzko eduki zehatzak lantzea ezinbestekoa da.

Laburbilduz, online esperientzia positiboa eta negatiboen arteko lerroa oso lausoa da eta, kasu gehienetan sarea arazoaren sorlekutzat jotzen den arren, sarea bitartekari hutsa dela gogoratu behar da. Sarean burutzen diren ekintzen garrantzia eta ondorioei buruz kontzientzia garatu behar dute adingabeek, sarean norberak duen ardura eta erantzukizuna bateratuz.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunean egokia litzateke parte-hartzaile kopurua handitzea eta horien adin-tartea zabaltzea, emaitzak aberasgarriagoak eta orokorragoak lortzeko. Horrek, formazio-ekintza fintzeaz gain, adingabeen errealitate digitalari buruzko ezagutza zehatzagoa eta Interneteko erabilera kritikoa garatzeko gakoak zehazteko aukera eskainiko luke.

Bestalde, badirudi gizartean adingabeen gaitasun digitalari buruzko kezka zabaldu dela. Horregatik, geletan sarean norberak duen ardura eta erantzukizunari buruzko ezagutza eta hausnarketa indartzeko gakoak zehazteko ezinbestekoa izango da adingabeen hezkuntza-agente nagusien ardura eta esperientziak jasotzea.

6. Erreferentziak

- 2006/962/CE, de 18 de diciembre de 2006, Recomendación del parlamento europeo y del consejo sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente. *Diario Oficial de la Unión Europea*, L394, del 30 de diciembre del 2006, 10-18.
- Aftab, P. (2005). Internet con los menores riesgos. Bilbo: Edex.
- Ballesta, J., Lozano, J., Cerezo, M., eta Soriano, E. (2015). Internet, redes sociales y adolescencia: un estudio en centros de educación secundaria de la región de Murcia. *Revista Fuentes*, 16, 109-130.
- Del Rey, R., Casas, J., eta Ortega, R. (2012). El programa ConRed, una práctica basada en la evidencia. *Comunicar*, 39, 129-138.
- Denzin, N.K. (2000). *The practices and politics of interpretation*. In N. K. Denzin eta Y. S. Lincoln (Eds.), *Handbook of Qualitative Research*. Londres: Sage Publications.
- Domenech, J., eta Vinas, J. (1997). *La organización del espacio y del tiempo en el centro educativo*. Bartzelona: Grao.
- Echeburúa, E., eta De Corral, P. (2010). Adicción a las nuevas tecnologías y a las redes sociales en jóvenes: un nuevo reto. *Addicciones*, 22, 91-96.
- EU Kids Online (2014). *Eu Kids Online: findings, methods, recommendations*. Hemendik berreskuratua: <http://eprints.lse.ac.uk/60512/>

- Europar Batzordea (2016). *Use of Internet Services by Citizens in the EU* (2016). Hemendik berreskuratua: <https://ec.europa.eu/digital-single-market/en/use-internet>
- Fernández-Montalvo, J., Peñalva, A., eta Irazabal, I. (2015). Hábitos de uso y conductas de riesgo en Internet en la preadolescencia. *Comunicar*, 44, 113-120.
- Gairín, J., Castro, D., Díaz-Vicario, A., Rodríguez-Gómez, D., Mercader, C., Bartrina, M.J., Mozo, M., eta Sabaté, B. (2014). Estudio sobre los usos y abusos de las tecnologías de la información y la comunicación en adolescentes. *Seguridad y medio ambiente*, 135, 18-29.
- García, A. (2011). Una perspectiva sobre los riesgos y usos de internet en la adolescencia. *Icono* 14, 396-411.
- Garmendia, M., Casado, M., Martínez, G., eta Garitaonandia, C. (2013). Las madres y padres, los menores e Internet. Estrategias de mediación parental en España. *Doxa.comunicación*, 17, 99-117.
- Graner, C., Beranuy, M., Sánchez-Carbonell, X., Chamarro, A., eta Castellana, M. (2007). ¿Qué uso hacen los jóvenes y adolescentes de internet y del móvil? In L. Álvarez, J. Evans, eta O. Crespo (Ed. Lit.), *Foro internacional sobre comunicación e xuventude. Comunicación e Xuventude: Actas do Foro Internacional*, pp. 71-90.) Compostelako Donejakue: Colexio Profesional de Xornalistas de Galicia.
- Guasch, O. (1997). *Observación participante*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Holloway, D., Green, L., eta Livingstone, S. (2013). *Zero to eight. Young children and their internet use*. Londres: EU Kids Online.
- INE; Instituto Nacional de Estadística (2015). *Encuesta sobre equipamiento y uso de tecnologías de información y comunicación en los hogares*. Resultados año 2006-2016. Hemendik berreskuratua: http://ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176741&menu=resultados&idp=1254735576692
- INTECO (2012). *Guía para usuarios: identidad digital y reputación online*. Hemendik berreskuratua: <https://www.incibe.es/file/QeTWH8vXM1MtSH7Apl5n5Q>
- Irazabal, I. (2013). *Evaluación de la eficacia de un programa de prevención de conductas de riesgo en internet: un estudio con preadolescentes navarros de 6º de Educación Primaria* (doktorego-tesia). Nafarroako Unibersitate Publikoa, Iruña.
- Livingstone, S. (2004). What is Media Literacy? *Intermedia*, 32 (3), 18-20.
- Mascheroni, G., eta Cuman, A. (2014). *Net Children Go Mobile: Final report. Deliverables D6.4 & D5.2*. Milan: Educatt.
- McCarty, C., Prawitz, A., Derscheid, L.E., eta Montgomery, B. (2011). Perceived safety and teen risk taking in online chat sites. *Cyberspsychology, Behavior, and Social Networking*, 14, 174-184.
- Protégeles (2014). *Menores de Edad y Conectividad Móvil en España: Tablets y Smartphones*. Hemendik berreskuratua: http://www.diainternetsegura.es/descargas/estudio_movil_smartphones_tablets_v2c.pdf
- Rial, A., Gómez, P., Braña, T., eta Varela, J. (2014). Actitudes, percepciones y uso de Internet y las redes sociales entre los adolescentes de la comunidad gallega (España). *Anales de psicología*, 30, 642-655.
- Tauste, O., eta Cervantes, P. (2012). *Tranki pap@s. Cómo evitar que tus hijos corran riesgos en Internet*. Bartzelona: Espasa Libros.
- Unicef (2014). *Grooming. Guía práctica para adultos*. Hemendik berreskuratua: http://www.unicef.org/argentina/spanish/guiagrooming_2014.pdf